



IRIZPEN ZK.: D22-013

IRIZPENA, ARABAKO UREN PARTZUERGOAK BIGARREN MAILAKO SAREKO UR-HORNIDURAREN ZERBITZUA EDO BEHE-HORNIDURA EGITEKO BURUTU NAHI DUEN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZ

AURREKARIAK

LEHENENGOA. - Vitoria-Gasteizko Udal Urak SAko (AMVISA) gerenteak, idazki baten bidez, irizpena eskatu zuen, jakiteko ea legezkoa den «behe-hornidurako» zerbitzua (biltegietan gordetzea eta hodian bidez azken erabiltzaileen –etxebizitzan, saltegien, industriaren eta gainerako establezimenduen– instalazio pribatuekin lotzen diren hartuneetara banatzea) emateko kontratuen kudeaketarako bildutako datuak lagatzea, zerbitzu-emaile berriaren akordioari atxikitzen zaizkion administrazio batzarretako bigarren mailako sareko ur-horniduraren zerbitzuen erabiltzaile bakoitzari aurretiaz adostasuna eskatu gabe, datuak lagatzeko eskatu baitu URBIDE-Arabako Ur Partzuergoak, «behe-hornidurako» zerbitzu hori ematen duen ente berria den aldetik.

BIGARRENA. - Idazki horretan azaltzen denez, Vitoria-Gasteizko Udal Urak SA 1970ean eratu zen sozietate anonimo gisa, eta eskusiboki Vitoria-Gasteizko Udalaren jabetzakoa da.

Sozietate anonimo horren xedea da Vitoria-Gasteiz hirian eta hiriaren jurisdikzioko herri jakin batzuetan ur edangarria bildu, araztu eta banatzeko zerbitzu publikoa ematea eta ur zikinak araztea.

Sozietate anonimoak abonatuak fitxategi automatizatu bat dauka, non bigarren mailako sareko ur-hornidurako kontratuak formalizatzen baitira. Fitxategi horren helburua da zerbitzuaren erabiltzaileen zerrendak kudeatzea, tarifa bidezko kontraprestazioak eskatzeko.

URBIDE-Arabako Ur Partzuergoak AMVISARI eskatu dio partzuergoari atxikitako administrazio batzarretako bizilagun diren erabiltzaileen hornidura-kontratuen datuak lagatzeko, helburua «behe-horniduraren» kudeaketa eskualdatzea dela.

HIRUGARRENA. - Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egindako errekerimenduari erantzuteko, URBIDE-Arabako Ur Partzuergoak azaldu du uraren ziklo integralarekin zerikusia duten zerbitzuen egikaritzapena eta kudeaketa bere gain hartu dituela eta, hortaz, bere iritziz, egokiena dela berak edukitzea ematen dituen zerbitzuekin lotutako kontratuen onarpen edo titulartasuna. Hain zuzen ere, ematen dituen zerbitzuak dira neurketa-ekipoak kontrolatzea, zerbitzuak kontratatzea, kontsumoak kontrolatzea, fakturatzea eta diru-bilketa nahiz ez ordaintzeak kudeatzea, erreklamazioak kudeatzea eta jarduera horren ondorioz



zehapenak ezartzeko ahala baliatzea; bada, horretarako guztirako, gaur egun AMVISAREN esku dauden datuak eduki behar ditu.

Esaten duenez, halaber, Partzuergoak dauka ura kudeatzeko eskumena; eskumen hori toki-entitateei beraiei dagokie, eta toki-entitateek eskumenaren titulartasuna daukatenez, beraiek daukate ahalmena beren datu pertsonalen tratamenduaren arduradun aritzeko.

LAUGARRENA. - Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek eta beste ente publiko batzuek tratamenduaren arduradun gisa edo, hala badagokio, tratamenduaren eragile gisa egiten dituzten datu pertsonalen tratamendua kontrolatzen duen agintaritza da.

Kasu honetan, AMVISA sozietate anonimoa da; beraz, bere jarduera ez dago Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontrolaren mende, eta agintaritza eskuduna Datuak Babesteko Espainiako Agentzia da. Ikusi bestela zer dioen otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17. artikulua, 2 artikuluekin zerikusia baitu.

Hala ere, aipatu den araudiaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio URBIDE-Arabako Ur Partzuergoak egin behar duen datu pertsonalen tratamendua kontrolatzea, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren ente publikoetako bat delako; beraz, bidezkoa da irizpen hau ematea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aztertuko du ea URBIDE-Arabako Ur Partzuergoak legitimitatea daukan ala ez «behe-horniduraren» kudeaketa eskualdatzeak dakarren datu pertsonalen tratamendua egiteko. AMVISA udal enpresaren esku dauden datu horiek administrazio batzarretako bizilagun diren erabiltzaileenak dira, hau da, pertsona fisikoen datu pertsonalak, eta pertsona horiek dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, Erregelamendu Orokorra) arautzen den oinarritzko eskubidearen, datuak babestekoaren titular bakarrak.

II

Irizpen hau eman aurretik, datuak babesteko oinarritzko eskubidearen enborreko kontzeptu batzuk aztertu behar ditugu, hala nola datu pertsonalaren definizioa eta datuen tratamenduarena.



Erregelamendu Orokorraren 4.1 artikuluan honela definitzen dira datu pertsonalak: *«Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri ("interesdun") bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».*

Kasu honetan, «behe-hornidurako» zerbitzua emateko kontratuetan jasotzen diren datu pertsonalak, datu pertsonal izango dira pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarrienak diren heinean.

Erregelamendu Orokorraren 4.2 artikulua xedatzen duenez, datu pertsonalen tratamendua da *«datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabiltzaile zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».*

URBIDE-Arabako Ur Partzuergoak kontratuak kudeatu nahi ditu behe-hornidurako zerbitzua emateko, eta horrek datu pertsonalen tratamendua dakar; hortaz, datuen babesari buruzko araudian jasotzen diren eginbeharrak bete beharko ditu.

Datu pertsonalen tratamenduek ezinbestean bete beharko dituzte Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluan aldarrikatzen diren printzipioak, besteak beste *zilegitasuna, fideltasuna eta gardentasuna* [Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikulua].

Printzipio hori betetze aldera, halako tratamenduek Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluan jasotako honako oinarri juridikoetako baten babesa beharko dute: adostasuna, kontratua, legezko betebeharra, interes publikoa edo botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea, interes legitimoa edo ukituaren berebiziko interesa.

Administrazio Publikoen kasuan, interes publikoaren izenean eta botere publikoen izenean egindako zeregin bat betetzea da oinarri legitimatzailearik ohikoena. Oinarri horri dagokionez, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, honako hau xedatzen du 8.2. artikuluan:

*«2. Datu pertsonalen tratamendua interes publikoan oinarritzeko edo arduradunari (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua xedatutakoaren arabera esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizunean oinarritzeko, **lege mailako arau batek esleitutako eskumenaren ondorio izan beharko du tratamenduak**».*

Aztergai dugun kasuan, aztertu behar da toki-araubidearen araubidea, bai eta toki-entitateek ur-horniduraren zerbitzu publikoa emateko dauzkaten eskumenak arautzen dituen araudia ere.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren (aurrerantzean, ETEL) 17. artikuluan xedatzen denez, legean bertan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek eskumen propioak erabili ahal izango dituzte hiri-erabilerako uraren ziklo integralean zerbitzuak antolatzeke, **kudeatzeko**, emateko eta kontrolatzeko. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-



hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.

ETELen 2.1.b) artikuluan xedatzen denez, toki-erakunde izango dira kontzejuak eta udalerriarena baino eremu txikiagoko beste lurralde-erakundeak, lurralde bakoitzean dagoen foru-araudian eta toki-araubidearen gaineko oinarritzko legerian ezarritakoaren arabera.

ETELen 2.1.b) artikuluan xedatzen denez, toki-erakunde izango dira kontzejuak eta udalerriarena baino eremu txikiagoko beste lurralde-erakundeak, lurralde bakoitzean dagoen foru-araudian eta toki-araubidearen gaineko oinarritzko legerian ezarritakoaren arabera. Manu horrek berak apartatuaren amaieran honako hau xedatzen du: «*Arabako lurralde historikoaren kasuan, legeek edo foru-arauek aitortzen dizkieten eskumenak dagozkie kontzejuei*».

Halaber, ETELen 2.2 artikuluan xedatzen denez, tokiko zerbitzu publikoak, ahal dela, udalerriak emango ditu eta, hala egitea bideragarria ez bada edo efizientzia edo eraginkortasunagatik bestelakorik komeni bada, orduan, udalerriek berek eratutako beste toki-erakunde batzuek (mankomunitateek, partzuergoek...) emango dituzte.

2. artikuluko horrek, hirugarren apartatuan, jarraian dio tokiko zerbitzu publikoak beste edozein toki-erakundek ere eman ahal izango dituela, baita udalez gaindiko toki-erakundeek ere; orduan, kontuan izango dira, beti, erakundeak osatuko dituzten udalerri guztien borondatea eta eskaera.

Bestalde, 10. artikuluko 3. apartatuan xedatzen duenez, autoantolaketaren ahalaren adierazgarri gisa, udalerriek tokiko zerbitzu publikoak emateko elkarte gisako formuletara jotzeko eskubidea dute, bereziki, zerbitzuak mankomunitate eta partzuergoen bidez eskainita.

Hala, 19. artikuluko bigarren paragrafoan ezartzen denez, udalerriek beren kasa gauzatu ahal izango dituzte eskumen propioak, edo indarreko legeriak aurreikusitako elkartzeko beste formula egoki batzuk erabilita, halako moldez non eskumen propioen ondoriozko zerbitzuen prestazioa edo kudeaketa erraztuko den, betiere ukitutako udalerriek zehaztutakoaren arabera.

Horren haritik, ETELen 104. artikuluan xedatzen denez, udalerriek eta gainerako toki-erakundeek partzuergoak eratu ahal izango dituzte beste administrazio publiko batzuekin, tokiko zerbitzu publikoak emateko lanean lankidetzak ekonomiko, tekniko eta administratiboaren inguruan guztien intereseko helburuak lortzeko.

Artikulu horrek hirugarren apartatuan zera xedatzen du: partzuergoek, beren eskumeneko zerbitzuen kudeaketarako, zuzeneko kudeaketa –partzuergoak berak kudeatzea, kontsultarako igorritako gaian gertatzen denez– edo zeharkako kudeaketa baliatu ahal izango dute, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuan aurreikusitako eren bidez.

Aztergai dugun kasuan, URBIDE-Arabako Ur Partzuergoa, 2019ko urtarrilaren 4an Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta orduz geroztik indarrean dauden estatutuen arabera, zuzenbide publikoko erakundea da, elkarte gisakoa eta borondatezkoa; administrazio publikoek eta, hala badagokio, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak osatzen dute, betiere lehenengoen xedeekin bat datozen interes publikoko helburuak betetzen badituzte.



Partzuergoak nortasun juridiko berekia eta berezitu dauka, eta bere helburuak lortzeko jarduteko gaitasun osoa du; beraz, ahalmena izango du ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzu publikoen azpiegitura ezartzeko eta horren ustiapena kudeatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera. Zehazki, partzuergoak uraren zikloari zuzenean lotutako zerbitzuak emango ditu honako alderdi hauei dagokienez:

a.-Ur hornidurari doazkion zerbitzuak, hau da, «adukzio» zerbitzuak (edo lehen mailako sareari lotutakoak) eta «banaketa» zerbitzuak (edo bigarren mailako sareari lotutako hornidura zerbitzuak).

b.-Saneamenduari dagozkion zerbitzuak, besteak beste, «intertzeptazioa/arazketa» eta «estolda sare».

Partzuergoa osatzen duten erakundeek beren eskumena egikaritzeko dute partzuergoaren beraren bidez, baina eskumenaren titulartasuna erakundeena izango da. Partzuergoak partzuergoko kide diren toki-erakundeak ordezkatzeko ditu bere helburuak lortzeko, eta horretarako, besteak beste, hornidura eta saneamendu zerbitzuak kudeatzeko ahal izango du.

Araudi horren arabera, honako hau ondorioztatu ahal dugu: URBIDE-Arabako Ur Partzuergoak, partzuergoa osatzen duten erakundeek ordezkatzeko gisa, legitimazio-oinarria izango du datu pertsonalak tratatzeko, ezinbestekoak baitira bigarren mailako sarean ur-horniduraren zerbitzu publikoa kudeatzeko.

Gainera, datuen tratamendu horretan, partzuergoak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5. artikuluan jasotzen diren gainerako printzipioak bete beharko ditu.

Hala, *gardentasunaren* printzipioaren arabera, interesdunei informazioa eman behar die datu pertsonalak biltzen direnean, eta hori Erregelamendu Orokorren 12., 13. eta 14. artikuluetan eta 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikuluan agintzen denaren arabera egingo da. Kasu honetan, 14. artikuluan xedatuta dagoenari bereziki jaramon egin beharko dio; beraz, datuak zer iturritatik jaso dituen komunikatu beharko die interesdunei.

Horrez gain, 5.1.c) artikuluan aldarrikatzen den *datuen minimizazioaren printzipioaren* arabera, tratatutako datuak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango dira, lortu nahi den helburua aintzat hartuta.

Helburua mugatzeko printzipioak [5.1.b) artikulua] behartuta, datuak helburu zehatz, esplizitu eta legitimoegi begira bilduko dira, eta, ondoren, ezin izango dira helburu horiekin bateragarriak ez diren moduan tratatu; helburutik desbideratzea onartuko da soilik 89. artikuluko 1. apartatuan jasotzen diren kasuetan, hau da, interes publikoaren izenean artxibatzea, ikerketa zientifiko edo historikoa edo estatistika helburu duen tratamendua egiteko.

Helburua bete beharrak eragina du informazioaren kontserbazio-epearekin; hain zuzen ere, Erregelamendu Orokorren 5.1.d) artikuluan *kontserbazio-epea mugatzearen printzipioa* aldarrikatzen du. Printzipio horren arabera, datu pertsonalen tratamenduaren helburuei begira interesdunak identifikatzeko beharrezkoa den baino denbora gehiago ez edukitzeko moduan egongo dira datuak; dena dela, 89.1 artikuluan arabera, datu pertsonalak luzaroago kontserbatu ahal izango dira baldin eta interes publikoaren izenean artxibatzeari begira tratatzen badira edo ikerketa zientifiko, historiko edo estatistikoari begira, hargatik



eragotzi gabe erregelamenduak interesdunaren eskubide eta askatasunak babesteko ezartzen dituen antolakuntzako neurri eta neurri tekniko egokiak.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1 f) artikulua xedatzen duenez, datu pertsonalen tratamenduari aplikatu beharreko printzipioetako beste bat osotasunaren eta konfidentziasunaren printzipioa da. Printzipio horren arabera, behar bezala segurtatzeko moduko tratamendua jasoko dute datu pertsonalek, baimenik gabeko edo legez kontrako tratamenduaren aurkako babesa eta datuok ustekabearen galdu, suntsitu edo kaltetzearen aurkako babesa barne, horretarako neurri tekniko eta antolakuntzako neurri egokiak erabiliz (32. artikulua).

Horren haritik, kontuan hartu behar da honako hau: tratamenduaren arduradunak administrazio publikoak direnean (eta hala da kasu honetan), arduradun horiek Segurtasunaren Eskema Nazionalean dauden segurtasun-neurrietatik dagozkienak aplikatu beharko dizkiete datu pertsonalen tratamenduei (3/2018 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarriko 2. apartatua).

Azkenik, nabarmendu behar da Datuak babesteko Erregelamendu Orokorrean fitxategiak sortu eta aitortzeko betebeharra ezabatzen dela, eta horren ordeztu *«tratamendu-jardueren erregistroa»* izeneko sortzen dela. Erregistro horren edukia 30. artikuluan arautzen da.

Hala, tratamenduaren arduradun bakoitzak bere ardurapean egindako tratamendu-jardueren erregistro bat eramango du (Erregelamendu Orokorren 30. artikulua) eta, 3/2018 Lege Organikoaren 31.2 artikulua arabera, Administrazioek beren tratamendu-jardueren zerrenda jarriko dute jendaurrean, baliabide elektronikoaren bidez irisgarri, non Erregelamendu Orokorren 30. artikulua jasotako informazioa eta haren lege-oinarria jasoko baitira.

Gogoeta horiek egiten ditu Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egin zaion kontsultari buruz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 11